Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak migraziorako euskal itun sozialari atxikitzeko eta EH Bilduk eskatutako puntuak bozketa bateratua egin da eta aho batez onartu dira.

Sometida a votación de forma conjunta la adhesión al pacto social vasco para la migración, remitido desde la Dirección de Migración y Asilo del Gobierno Vasco y los puntos a añadir a la misma solicitados por EH Bildu son aprobados por unanimidad.

**2.- Onartzea, hala badagokio, EH Bilduk interes publiko handiagoko proiektuen erregulazio berriari buruz aurkeztutako mozioa**.

**2.- Aprobación, si procede de la moción presentada por EH Bildu sobre la nueva regulación de los proyectos de interés público superior.**

Ondoren, EH Bilduk aurkeztutako mozioaren berri eman zaio Osoko Bilkurari, Eusko Legebiltzarrean interes publiko handiagoko proiektuen erregulazio berriari buruz eztabaidatzen ari den lege-proiektuari dagokionez. Mozioak honela dio:

Seguidamente se da cuenta al Pleno de la moción presentada por EH Bildu en relación al Proyecto de ley que se está debatiendo en el Parlamento Vasco relativo a la nueva regulación de los proyectos de interés público superior. La moción dice así:

**INTERES PUBLIKO GORENEKO PROIEKTUEN ERREGULAZIO BERRIARI BURUZKO MOZIOA**

Gaur egun, Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektua izapidetzen ari da Eusko Legebiltzarrean, eta zuzenketak aurkeztu ondoren, Legebiltzarreko prozeduraren fase aurreratuan dago, epe laburrean onartu dadin.

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketetariko baten xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea aldatu eta figura berri bat arautzea da, hau da, PIPS edo Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura sortzea.

Aldaketa horren bidez, Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio ustezko ingurumen-hobekuntza izan dezakeen edozein azpiegitura Interes Publiko Goreneko Proiektu izendatzeko, baldin eta sustapen publikoa badago, hala nola, energia berriztagarriak sortzeko proiektuak, zabortegiak, araztegiak, erauzketa-proiektuak, etab. Gainera, ez zaie aterik ixten beste proiektu mota batzuei, hala nola ekipamendu handiei edo bestelakoei, baldin eta ingurumenaren aldetik nolabaiteko justifikazioa badute (eremu degradatu batean planteatutako ia edozein proiektu, esaterako, antzinako hondakindegi batean golf-zelai bat...).

IPGP izendapen horrek lurralde-antolamenduko eta hirigintza-plangintzako tresna guztiak azpiegitura berrira egokitu beharra ekarriko du, hau da, IPGPak, herritarren parte-hartzearekin eginiko udalen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrei inposatu egingo zaizkie, balizko interes orokorreko proiektu horiek toki-eremuko administrazio publikoen irizpidearen aurkakoak izan arren; zentzu horretan IPGPak HAPOa baliogabetu egingo du. Are

gehiago, Lurralde Antolamenduaren Legearen aldaketa honek toki-erakundeen prebentzio-kontrolerako ahala ere baliogabetzen du.

"IPGP" figura, beraz, lurralde- eta hirigintza-plangintzaren inguruan ezarritako adostasunaren aurkako eraso bat da. Toki-eremuko autonomia eta demokrazia nabarmen urratzea, udalari ez baitzaio aukerarik ematen bere lurraldearen barruan desegokitzat jotzen dituen erabilerak mugatzeko.

Kezka handiz ikusten dugu Ingurumen Administrazioaren Legea laster baldintza horietan onartu ahal izatea. Hori dela eta, Olaberriko Euskal Herria Bildu Udal Taldeak honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartzeko:

1. Olaberriko Udalaren Osoko Bilkurak adierazten du Lurralde Antolamenduari buruzko Legeak Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura jasotzearen aurka dagoela, eta baita ere, gure udalen toki-autonomiarentzat kaltegarria den eta gure toki-demokrazia urratzen duen beste edozein tresnaren aurka dagoela.

2. Olaberriko Udaleko Osoko Bilkurak EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteari eskatzen dio, udalen udal-interesa defendatzeko, jendaurrean adieraz dezala aurka dagoela eta dagozkion kudeaketa guztiak egin ditzala Lurralde Antolamenduari buruzko Legea aurreko puntuan deskribatutako moduan alda ez dadin.

3. Olaberriko Udalaren Osoko Bilkurak mozio honen edukia Eusko Legebiltzarrera eta EUDEL Euskal Udalen Elkartera bidaltzea erabaki du

Mozioa bozkatu ondoren, EH Bilduren aldeko 2 botorekin eta O.E.O.ko 5 abstentziorekin onartu da.
Botoa azaltzeko txandan Urkiola jaunak honako hau adierazi du:

Sometida a votación esta moción resulta aprobada con 2 votos favorables de EH Bildu y 5 abstenciones de O.E.O.
En el turno de explicación de voto el Sr. Urkiola manifiesta lo siguiente:

**IPGP aurrean gure jarrera eta argudioak**
Hilabete honetan IPGP figuraren bitartez EAJk (PSEren laguntzarekin) Lakuatik herriei proiektu publiko zein pribatuak inposatzeko bidea ireki nahi du, HAPO zein Lurralde arloko planez gain. Udal autonomiaren aurkako eraso larri honen aurrean zera diogu:

1. EAJk ez du planik krisi klimatikoari aurre egiteko. Inprobisazioa da nagusi, eta ondorioz, momentuko arazoei momentuko irtenbidea emateko inposaketaren bidea hartu nahi du.

2. Gure herrian HAPOan herritar guztiok erabakitakoaren gainetik proiektuak inposatzea onartzen du. Gure herrian erabakitakoa defendatu behar dugu.

3. Krisi klimatikoari erantzukizunez egin behar zaio aurre, arazo globalei tokiko irtenbidea bilatuz. Guztion artean, adostasunez, proiektuak inposatzeak arazo eta kontrakotasun gehiago besterik ez ditu sortzen.

•

Botoa azaltzeko txanda horretan bertan, Alkateak adierazi du ordezkatzen duen taldea

En este mismo turno de explicación de voto el Sr. Alcalde manifiesta que siendo el grupo al

udalekoa izanik, gaizki iruditzen zaiola udal-autonomia murriztea. Bestalde, eta ikusita inork ez duela nahi bere udalerrian horrelako proiekturik, ez dago gaizki norbaitek erabakitzea non kokatu horrelako proiektuak udalen interesen gainetik. Hala ere, guztiek aukeratutako Eusko Legebiltzarra dago, lege-proiektu honen aldeko eta kontrako argudioak defendatzeko.

que representa de carácter municipalista le parece mal que que se recorte la autonomía municipal. Por otra parte y viendo que nadie quiere en su municipio un proyecto de esas características, no está mal que alguien decida donde ubicar proyectos de ese calibre por encima de los intereses de los municipios. No obstante existe un Parlamento Vasco elegido por todos para que sean defendidos los argumentos a favor y en contra de este Proyecto de ley.

**3.- Onartzea, hala badagokio, EH Bilduk aurkeztutako mozioa, energia-horniduraren prezioen igoeraren aurrean hartu beharreko neurriei buruzkoa.**

**3.- Aprobación, si procede de la moción presentada por EH Bildu sobre las medidas a tomar ante el aumento de los precios del suministro energético.**

Jarraian, Osoko Bilkurari jakinarazi zaio EH Bilduk aurkeztutako mozioa, energia-horniduraren prezioen igoeraren aurrean hartu beharreko neurriei buruzkoa. Mozioak honela dio:

Seguidamente se da cuenta al Pleno de la moción presentada por EH Bildu en relación a las medidas a tomar ante el aumento de los precios del suministro energético. La moción dice así:

**MOZIO proposamena Energia horniduraren prezioen gorakadaren aurrean hartzeko neurrien inguruan.**

Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin.

**ZIOA**

Argindarraren prezioa maximo historikoetan; fakturak igotzen; enpresa elektrikoak aberasten, herritarrak pobretzen eta Espainiako Gobernua hori baimentzen ari da. Hori da, hain zuzen ere, herritarren aurka egiten ari den iruzur handiaren laburpena. Iruzur horrek ondorio larriak izan ditu familietan, enpresa txiki eta ertainetan edo denda txikietan.

Egoera hori, besteak beste, enpresa publikoen pribatizazioaren, salmentaren eta desegitearen ondorioz etorri da; izan ere, horrek sistema desarautzea eta "merkatuaren" esku uztea ekarri du. Administrazio Kontseiluetatik kontrolatzen eta manipulatzen duten merkatua, helburu bakar bat partekatuz: energia bezalako funtsezko ondasun baten kontura aberastea, non enpresa handiek urtean mila milioi euroko irabaziak metatzen dituzten, kontsumitzaileei dirua lapurtzen eta ekoizleei lurraldeak ebazten dizkieten bitartean, ondorio sozial eta klimatiko oso larriak eraginez.

Egoera horri aurre egiteko neurri koiunturalak eta adabakiak besterik ez dira hartu. Eta enpresa handien onurei eragingo dien neurri bakarra hartu duenean, enpresa xantaia egin eta mehatxura jo

dute. Eliteen eta gehiengo sozial eta herrikoien arteko pultsu baten aurrean gaude, finean.

Egoera hau garesti ateratzen zaigu. Bada garaia burujabetza energetikorantz aurrera egin dezagun, ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak izan ditzagun, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeko eta argindarra errespetatzeko, oinarrizko ondasun eta eskubide gisa.

Gure eskumen propioetatik, tokiko erakundeetatik ere, urratsak eman ditzakegu norabide horretan, herritarren interesak babesteko. Horregatik,

**EBAZPEN PROPOSAMENA**

1. Olaberriko Udaleko Osoko Bilkurak Espainiar estatuko enpresa elektrikoak argindarraren prezioarekin egiten ari diren iruzur larria salatzen dute.

2. Olaberriko Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko eta Europako instituzioei eskatzen die, behar beste neurri har ditzaten elektrizitate ekoizleek bidezko ordainsaria soilik jasotzen dutela bermatzeko. 2019/44 Europar Zuzentarauak adierazten duena burutuz, kontsumitzaileentzat energia-prezio eta -kostu eskuragarriak eta gardenak bermatzeko.

3. Olaberriko Udaleko Osoko Bilkurak Jaurlaritzari eskatzen dio:

3.1. Autokontsumoa eta komunitate energetikoak sustatzeko diru partidak gutxienez bikoiztu ditzala 2022. urteari begira.

3.2. Energiaren Euskal Erakundearen bitartez elektrizitatearen merkaturatzaile publiko bat sortzeko bideragarritasun-azterketa egin dezala.

3.3. Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara zuzendutako ordainketa-kreditua handitu dezala, *“elektrizitatearen, gasaren edo etxean erabiltzeko bestelako erregaien horniduraren ondoriozko energia-gastuekin”* erlazionatutako laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituen eskaerarik baztertu ez dadin.
3.4. Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan, *“elektrizitatearen, gasaren edo etxean erabiltzeko bestelako erregaien horniduraren ondoriozko energia-gastuetarako”* eman daitezkeen diru-kantitateak handitu ditzala, eta gutxieneko zenbatekoak ezar ditzala, indarrean dauden horniduren prezioarekin bat egon dadin.

| | |
|---|---|
| Mozioa bozkatu ondoren, aho batez onartu da. | Sometida a votación esta moción resulta aprobada por unanimidad. |
| Botoa azaltzeko txandan Urkiola jaunak honako hau adierazi du: | En el turno de explicación de voto el Sr. Urkiola manifiesta lo siguiente: |

**Elektrikak mozioa**

KPI, BIZITZAREN GARESTITZEA ETA SOLDATA IGOERA

Argindarra, erregaiak eta eguneroko bizimodurako beharrezkoak diren prezioen gorakadak ez du etenik.

Urriko datuen arabera, KPIaren igoera %5eko da. Parametro honek bizi moduaren garestitzea errealki neurtzen duenaren inguruko zalantza nabariak baditugu ere, garestitze horren estimazioa egiteko datu hau da kontutan izan dezakegun bakarra.

Kapitalak KPIarekin egin dezakeen erabilera interesatuaz gain, soldatetan ez da horrelakorik.

Bizimoduaren garestitzea neurtzen duen adierazlearen adineko gutxieneko soldata igoera bermatua dugu.

**4.- Onartzea, hala badagokio, 2021eko euskararen nazioarteko egunerako adierazpena.**

Jarraian, Osoko Bilkurari Euskararen Nazioarteko Egunaren deklarazioaren berri eman zaio. Adierazpenak honela dio:

**4.- Aprobación, si procede de la declaración del día internacional del euskera de 2.021.**

Seguidamente se da cuenta al Pleno de la declaración del día internacional del euskera de 2.021. La declaración dice así:

**2021EKO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA**

**Euskara lanabes, aro berrirantz**

**Erabilera-eremu berri eta ez formaletan ere, euskarak arnas berri**

- Tentuz, baina ateratzen ari gara, azkenean, beltzenetik argira. Berreskuratzen hasi gara gutariko bakoitzaren eta elkarrekin osatzen dugun herriaren eta gizartearen bizitza erakargarri ez ezik, jasangarri ere egiten duena: zuzeneko harremanak; elkartzeko ohiturak, aukerak eta guneak; osatzen gaituzten besteengana biltzeko joera. Eta, horrekin batera, ezinbestekoa dugun jarduera ekonomikoaren hari eta sareak berriz ere indartzen ari gara, pandemiaren aurretiko tokira eta, inola ere ahal balitz, hobera iristeko itxaropenez.

Eta erabaki sendo bat dugu gidari: ez dadila funtsezkorik ezer atzean geratu.

Ezta euskara ere. Inola ere ez.

Gurekin batera egin dio euskarak pandemiari aurre, eta gurekin irten behar du garaile. Izan ere, aro berrian, gure eta geure gizartearen zaurgarritasunaren jakitun egin gaituen egoera larriaren ondoren, harreman eta komunikazio molde, ohitura eta bide berriak sortzen ari dira, eta are berriagoak eta harrigarriagoak sortuko dira aurrerantzean.

Pandemiak agerian utzi du jakin bagenekiena: zenbateraino diren ezinbestekoak komunikazio ildo eta sareak, zenbaterainoko balioa eransten dion komunikazioak gure zeinahi jarduerari; orain, jakiteaz gain, sentitu ere egiten dugu errealitate hori: sakon-sakoneraino barneratu dugu komunikazioaren, harremanaren funtsezkotasuna. Hori da aro berriaren ezaugarri nagusietariko bat. Eta hori bera du euskarak erronka: komunikazio eta jarduera eremu berrietan ere, naturaltasun osoz, dagokion tokia hartzea. Eraginkorki. Tinko.

Euskara, euskal hiztunon komunitatearen jarrera proaktiboari esker, IKTek hizkuntza gutxituen hedapena eta

indartzerako ekarri duten erronka handiari aurre egiten ari zaio, komunikazio eta informazioaren teknologien sareetan. Badu tokirik. Baliagarria da. Eta zinez zaila du hizkuntza ozeano erraldoian horrelakorik lortzea.

Eredugarria da alor horretan ere euskal hiztun komunitateak egin duen eta egiten ari den lana, besteak beste erabilerarekin zuzen-zuzenean loturiko presentzia delako euskarari benetako balio erantsia dakarkiona. Eta argi geratzen ari da erakunde publikook eskaini behar dugun ezinbesteko babes eta lidergotik, ekimen eta lankidetza publiko-pribatuaren eskutik lan egiten badugu, erronkaren neurriak ez gaituela beldurtu behar. Gai garela argiro erakusten ari garelako, adibidez hezkuntzaren munduan, hedabideenean, osasungintzarenean, eremu sozioekonomikoan, administrazioarenean eta beste hainbat eta hainbatetan urrats ausartak eman behar direla eta ematen ari garela euskal hiztunen eskubideen gauzapen errealean.

Eta horietan guztietan aurrera egin beharra dago, jakina, aurrerapauso sendoagoak emanez, jarraikortasunez, etengabeko berrikuntzaren bidetik eta guztion konpromisotik. Baina pandemiaren osteko aro berriaren hasiera honek beste ikuspegi bat eranstea eskatzen digu: hizkuntzaren erabilera formalekin batera, eremu ez formaletakoa landu beharra dago, behar besteko lehentasunez. Euskal hiztunak naturaltasun osoz gauzatu behar du euskaraz bizitzeko aukera, eguneroko harremanetan eremu formaletik lan mundu, aisialdi, kultur edo kirol eremuetara igarotzean, hori bera baita, hain zuzen ere, euskaraz bizitzearen esanahietako bat. Ezin dizkiogulako euskarari ukatu gorputz eta espirituaren atseden eta gozamenari lotzen zaizkion eremu horiek. Eta hor aurrera egiteko, hiztunen konpromisoa ez ezik ezinbestekoa izango da instituziook egin behar dugun ahalegina: bitartekoak jarriz eta eredugarritasuna erakutsiz.

Euskararen bizi-indarra dugu jokoan, eremu formalez gainera, eremu ez formal horiek euskararentzat irabaztearen erronkan. Izan ere, alor horretan euskararen erabilerak jauzi bat egiteak errotik eta norabide zeharo positiboan aldatuko luke hiztun asko eta askorengan, oso bereziki gazteengan, euskararekiko bizipena.

Aisialdi eta kirolaren eremuek badituzte, bestalde, berezko ezaugarri baliotsuak hizkuntza erabiltzeko ohituren aldaketari dagokienez, eta askotariko antolakuntzarako joera dute (klubak, federazioak, elkarteak, taldeak…). Nekez bilatuko genuke esparru egokiagorik gazteengana iristeko, euskararen erabilera ez formalari berebiziko bulkada emateko, partaide gazte zein ez hain gazteengan euskararantz urrats eraginkorra egiteko gogoa aktibatuz. Horra, beraz, eginkizuna.

Aukera paregabea dugu normaltasun berri baterako bidearen hastapen honetan berreskuratzen ari garen eta asmatuko ditugun harreman eta erabilera-eremu berrietarako euskara, bidelagun ez ezik, lanabes eraginkor bilakatzeko. Guztion esku dago.

Euskara prest dugu; gure gizartea, gogotsu; gure herria, erabakia hartuta. Abia gaitezen.

| | |
|---|---|
| Aitorpen hau bozkatu ondoren, aho batez onartu da. | Sometida a votación esta declaración resulta aprobada por unanimidad. |
| • **5.- Onartzea, hala badagokio, 2021eko azaroaren 25erako, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako eguna dela eta.euskararen nazioarteko egunerako adierazpena.** | **5.- Aprobación, si procede de la declara-ción para el 25 de noviembre, con motivo del día por la eliminación de la violencia contra las mujeres 2.021.** |

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

Ondoren, Osoko Bilkurari azaroaren 25erako adierazpenaren berri eman zaio, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko eguna dela eta. Adierazpenak honela dio:

A continuación se da cuenta al Pleno de la declaración para el 25 de noviembre, con motivo del día por la eliminación de la violencia contra las mujeres**.** La declaración dice así:

**AZAROAREN 25ERAKO ADIERAZPEN EREDUA, 2021EKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA DELA ETA**

Emakumeen aurkako indarkeria larderiarako tresna indartsua da, emakumeei zuzendua, indarrean dauden genero-arauak desafiatu eta eralda ez ditzaten. Mehatxurako tresna hori zuzenean emakumeengan erabiltzen da, baina baita haien gertuko pertsona maitatuenengan ere, min handiagoa sortzeko modu gisa. Kalkuluen arabera, bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik indarkeria jasaten duten EAEko hamar emakumetik seik seme-alaba adingabeak dituzte, eta horiek ere biktima bihurtzen dira.

Indarkeria bikarioa esaten zaio emakumeari, hirugarren pertsonak baliatuz, kalte psikologiko handiena eta larriena eragiteko egiten zaion biolentzia motari, zeinak ankerkeria-maila gorena lortzen duen haien erailketarekin (seme-alabak, ama, aita, egungo bikotekidea, etab.). Istanbulgo Hitzarmenean ezarritakoa aplikatuz, kasu horiek ere genero-indarkeriaren parte gisa ulertzen dira, seme-alabei egindako kalteak erasotzaileek emakumeei tratu txarrak transmititzeko tresna bihurtzen diren heinean.

Azken lege-aldaketek dagoeneko jasotzen dute figura hori, biktima adingabeak babesteko neurriak sortzeari eta hedatzeari dagokionez. Hala ere, oraindik ere beharrezkoa da genero-indarkeria ukatzen duten, kasu horietan seme-alaben arriskua gutxiesten duten eta indarkeria horri aurre egiteko tresna juridikoak zalantzan jartzen dituzten diskurtsoen eta jarreren aurka ohartaraztea. Jarrera horiek adingabeen eta emakumeen birbiktimizazioan eragiten dute, haien salaketak susmopean jartzen dituzte, amak zigortzen dituzte, haien testigantza gutxiesten dute eta aitaren guraso-ahalaren eskubidea babesten dute, emakumeen eta adingabeen segurtasunaren eta indarberritzearen gainetik.

Emakumeen aurkako indarkeria beren seme-alaben bidez sistematikoki egikaritzeko modu horren aurrean, bai eta emakumeak kontrolatzeko, hertsatzeko eta kaltetzeko modu guztien aurrean ere, euskal erakundeok indarkeria horri aurre egiteko erantzukizuna dugu, kontuan hartuta ez direla gertakari isolatuak, egiturazko desberdintasun-egoera bati erantzuten diotela, eta egoera horri ikuspegi feministatik heldu behar zaiola.

Horregatik, Olaberriko Udalak honako konpromiso hauek hartu nahi ditu:

- Indarkeria bikarioaren errealitate hori agerian jartzen eta behar bezala artatzen laguntzea, besteak beste, Istanbulgo Hitzarmenak jasotzen dituen indarkeria-bideen biktima adingabeak koordinazio protokoloetan eta indarkeria matxistaren biktimak artatzeko protokoloetan txertatzea eta protokolook eguneratzea.
- Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak hautematen eta esku-hartze goiztiarra egiten laguntzea, udal-zerbitzuen bidez, beste eragile batzuekin lankidetzan (hezkuntza-, osasun- eta polizia-agenteak, etab.), eta emakumeek beren ardurapean dituzten adingabeekin eta kaltetutako beste pertsona batzuekin behar dituzten beharrei eta baldintzei erantzutea.
- Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak babesteko eta esku hartzeko prozesuak hobetzea, beren eskumenen esparruan, ikuspegi feminista duen sektore arteko abordatze integral eta holistikotik.
- Neurri guztien erdigunean jartzea biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea, eta laguntza integrala ematen laguntzea, prozedura judizialarekin duten inplikazio- edo lankidetza-maila edozein dela ere.
- Toki-administrazioko langileak berdintasunari buruzko prestakuntza jaso dezaten bultzatzea, bereziki

emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean erantzuten diharduten langileei, genero-ikuspegia eta giza eskubideen ikuspegia aintzat hartuz .

- Lanean jarraitzea berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako, eta, ondorioz, haien seme-alaben aurkako, herri-itun bat lortzeko, herritar guztien jarrera aktiboa behar dugulako indarkeria matxistarik gabeko gizarte bat lortzeko.

Herritarrei gogorarazi nahi diegu indarkeriaren biktimei laguntzeko baliabideen sarea eskuragarri dagoela, besteak beste, SATEVI (900 840 111) indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko arreta-zerbitzuaren eta ZEUK ESAN (116 111) haur eta nerabeentzako telefono eta online orientazio-, aholkularitza- eta informazio-zerbitzuaren bidez.

Era berean, herritarrei dei egiten diegu azaroaren 25ean bat egin dezaten emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta beren udalerrietan deitutako mobilizazioekin.

Aitorpen hau bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

Sometida a votación esta declaración resulta aprobada por unanimidad.

**Galdera eta erreguak**

Aitor Urkiola jaunak hartu du hitza, eta honako hau galdetzeko eta/edo adierazteko:

- Noiz egingo dira 2022rako aurrekontua onartzeko batzordea eta osoko bilkura? Alkateak erantzun dio egun hauek aztertzen ari direla: Batzordea abenduaren 17an eta Osoko Bilkura abenduaren 22an. Bi kasuetan, eguerdialdera izango lirateke, eta, beraz, ahalegin bat egin beharko litzateke egun horietan abenduko zubia baino lehen, horiek egiten amaitzeko.

- EH Bilduko bi zinegotziek erabaki dute aurten ez direla geratuko dagozkien Errigorako Gabonetako bi saskiekin. Gabonetako ekitaldiren batean zozketatuko dituzte.

- Ez da deialdi ofizialik edo orokorrik egin azaroaren 24an Ihurreko udal ostatua

- **Ruegos y preguntas**

Toma la palabra el Sr. Aitor Urkiola para preguntar y/o manifestar lo siguiente:

- ¿Cuando se van a celebrar la comisión y pleno de aprobación del Presupuesto para 2.022?. El Sr. Alcalde le responde que se barajan las fechas siguientes: Comisión el 17 y Pleno el 22 de diciembre. En ambos casos serían al mediodia, por lo que habra que hacer un esfuerzo estos dias antes del puente de diciembre para finalizar la elaboración de los mismos.

- Los dos concejales de EH Bildu han decidido que este año no se van a quedar con las dos cestas de navidad de Errigora que les corresponderian. Las van a sortear en alguno de los actos de navidad que se celebren.

- No ha habido una convocatoria oficial o general para la inauguración del Ostatu municipal de Ihurre del pasado miércoles 24

inauguratzeko.

- Udal honen deialdiei eta komunikazioei publizitate handiagoa eman beharko litzaieke, udalerriko gune estrategikoetan iragarki-taulak jarriz. Horri dagokionez, Alkateak erantzun du taula horiek badaudela eta iragarkiak jarri direla. Hala ere, aitortzen du zerbitzua hobetu daitekeela.

Azkenik, alkateak esan du Udaleko ofizialaren erretiroagatiko baja bitarteko moduan beteko duen langilea hautatu dela. Horretarako, Zaldibiako Udalean dagoen lan-poltsa erabili da. Era berean, administrari lanpostuaren hautaketa-prozesuak aurrera jarraitzen du, eta oposiziogileek alegatutako merezimenduak justifikatzeko epea amaitzear dago. Azkenean hautatzen den pertsonak urtarrilean karguaz jabetu ahal izatea aurreikusten da.

**Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 19ak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten du.**

de noviembre.

- Se deberia dar una mayor publicidad a las convocatorias y comunicaciones de este Ayuntamiento, colocando tablones de anuncios en puntos estratégicos del municipio. A este respecto el Sr. Alcalde contesta que esos tablones ya existen y los anuncios se colocan. No obstante reconoce que el servicio pudiera ser mejorable.

Por último el Sr. Alcalde comenta que ya se ha seleccionado el trabajador que va a cubrir de forma interina la baja por jubilación del oficial del Ayuntamiento. Para ello se ha utilizado la bolsa de trabajo existente en el Ayuntamiento de Zaldibia. Asimismo sigue su curso el proceso selectvo de la plaza de administrativo, encontrandose a punto de finalizar el plazo para la justificación de los meritos alegados por los opositores. Se prevee que en enero pueda tomar posesión la persona que sea finalmente seleccionada.

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 19 horas y yo, Secretario de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**IDAZKARIA / EL SECRETARIO**

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA